

## 02 Baliabide digitalak

Gaur egun, irakasleek hezkuntza-baliabide digital andana dute, irakasteko erabil dezaketena. Irakasleek garatu behar duten funtsezko gaitasunetako bat da baliabide andana hori kudeatzea, ikasketa-helburuekin, ikasle taldearekin eta irakasteko metodologiarekin hobekien bat datozen baliabideak identifikatzea, material andana egituratzea, loturak egitea, eta irakasten laguntzeko baliabideak moldatzea, gehitzea eta garatzea.

Era berean, kontuan izan behar dute eduki digitala nola erabili eta kudeatu modu arduratsuan. Copyright-arauak errespetatu behar dituzte baliabideak erabiltzean, moldatzean eta partekatzean, eta isilpeko edukiak eta datuak babestu behar dituzte, hala nola azterketa digitalak eta ikasleen notak.

### Baliabide digitalak



#### Baliabide digitalak aukeratzea

Irakasteko eta ikasteko baliabide digitalak identifikatu, ebaluatu eta aukeratzea. Ikasketa-helburu espezifikoak, testuingurua, ikuspegi pedagogikoa eta ikasle taldea aintzat hartzea, baliabide digitalak aukeratzean eta horien erabilera planifikatzean.



#### Baliabide digitalak sortu eta moldatzea

Baliabideak (lizentzia irekikoak eta beste) moldatzea eta erabiltzea, zilegi bada. Hezkuntza-baliabide digitalak sortzea (bakarrik edo elkarlanean). Baliabide digitalak diseinatzean eta erabilera planifikatzean, aintzat hartzea ikasketa-helburu zehatzak, testuingurua, metodologia pedagogikoa eta ikasle taldea.



#### Baliabide digitalak kudeatu, babestu eta partekatzea

Eduki digitala antolatzea eta ikasle, guraso eta beste irakasleen esku jartzea. Isilpeko eduki digitala eraginokori babestea. Pribatutasun- eta copyright-arauak errespetatu eta behar bezala aplikatzea. Lizentzia eta hezkuntza-baliabide irekiak nola erabili eta sortu ulertzea, eta lan bat norena den nola adierazi jakitea.